



MUGARIK GABE

Giza Garapen jasangarria eta bidezkoa lortzeko
lankidetzarako gobernu kanpoko erakundea

Herri-Onurako Elkartea



TXOSTENA 2016

2016. urtean ahalegin handia eskaini diogu 2016-2020 Estrategia berria berrikusteari eta martxan jartzeari. Inguruarekiko izango dugun harremana definitu nahi izan dugu, gizartean dugun eragina areagotu, eta antolakunde gisa dugun bideragarritasuna bermatu. Plangintza orokorraz gain, uste dugu datozen 4 urteetan izango dugun jarduna argi adierazi behar dugula aritzen garen arlo (Genero oreka, Herri Indigenak eta Bizitza Jasangarriak) eta talde (Lankidetzak eta Hezkuntza) guztietan, betiere gure misioaren eta Mugarik Gaberen balioen arabera.

2016-2020 Estrategia Plan berrian askoz gehiago uztartu nahi dugu **Eragin Politikoa** eraldaketa sozialerako tresna gisa, **Hezkuntza Eraldatzaile**ekin; paraleloan —eta batzuetan elkarrekin— joan behar diren prozesuak dira, salaketatik abiatuta baina baita ere, funtsean, alternatibak proposatuz. Honela ulertzen dugu eragin politikoa: maila lokal eta globalean, gobernu proiektu edo programa soziopolitikoetan aldaketa zehatzak lortzeko gaitasuna, eta gizarteko askotariko arlotan erabakitze ahalmena duten eragileengan eragiteko gaitasuna, alderdi politikoetara mugatu gabe. Horregatik eraldaketa eta garapen sozialerako subjektu politiko diren gizarte-mugimenduekin, sindikatuekin eta antolakundeekin **parte hartzen dugu eta saretzen gara**.

Maila indibidualean zein antolakunde gisa aldatuko gaituen hezkuntza baten alde lan egiten dugu. Herritarrengan **kontzientzia kritikoa eta elkartasunezkoa** piztuko duen hezkuntza nahi dugu, zeinak errealitatea ezagutzea sustatuko duen, zalantzan jarriko dituen gure garapen eredia eta ingurunearekiko dugun harremana, eta pertsonen eta herrien arteko desoreken iturriak ulertzen lagunduko duen. Gure balioak eta praktikara eramateko moduak birpentsatzen ditugu; gure diskurtsoak egunerokotasunean txertatzeko moduak. Eraldaketarako ditugun erantzukizun eta aukerak aztertzen ditugu norberaren eta kolektiboaren aldetatik bidez, ahalduz indibidualaz pertsona politikoki aktiboak lortzeko; finean, proposatzen dugun aldaketa gorpuztu nahi dugu.



Mugarik Gaben giza eskubideak oinarri dituen Lankidetzak eraldatzaile baten alde egiten dugu, Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzan eta Latinoamerikan babesten ditugun nazioarteko lankidetzak proiektuetan. Helburua bizitzaren jasangarritasuna eta pertsonak erdigunean jartzea da, eta **PERTSONA GUZTIENTZAKO ESKUBIDE GUZTIAK** osorik eta modu eraginkorrean lortzea.

Bizimodu Onaren paradigmari begiratzen diogu. Bizimodu Onak mende luzeetako menderatze eta esplotazioa gorabehera bizirauten jakin duten herri indigenen mundu-ikuskeran du oinarria. Desazkundearen paradigmari begiratzen diogu halaber, zeinak erdigunean jartzen duen mundu mugatu honetan hazkunde ekonomiko mugagabea ezinezkoa delako ideia, eta ekonomia “autozentratuen” inguruan hausnartzen duen. Eta, jakina, Feminismoei ere begiratzen diegu; horrek gogora ekartzen digu genero harremanen esparru berria eraikitzeko konpromisoak baldintzatuko duela alternatiben eraldatzeko gaitasuna.



Ezin dugu irudikatu lankidetzak edo hezkuntza jardunak, baldin eta honakoa oinarri ez badu: behin oinarritzko premiak aseta, giza garapena gehiago izatean datza funtsean, eta ez gehiago edukitzean. Halaber, ezin dugu irudikatu inolako ekintzarik ikuspegi feminista argirik ez duenik, **emakumeen ahalduak lortzeko, eta emakume eta gizonen arteko ezberdintasun guztiak ezabatzea** ezinbestekoa dela uste baitugu. Apustu hori epe luzerako prozesuen bidez abiatu dugu, beste paradigmak ulertzen eta kontuan hartzen. Horrek beste herriekiko beharrezkoa den berdintasun mailan kokatzen gaitu, menderatzailea, neokoloniala eta etnozentrkoa den sistemarekin hautsiz. Patriarkatua eta kapitalismoaren ondorioak salatzeaz gain, **alternatibak eraikitzeko** ekarpen xumea ere egin nahi dugu.

Egungo interdependentzia globala dela eta, beharrezkoa da orainarekiko eta etorkizunerako erantzukizun-zentzuarekin bizitzea. Lankidetzak zein hezkuntzak, gaur egun ezinbestekoa den ikuspegi globalaren alde egiten dute; herrien, **herrialdeen, pertsonen eta naturaren arteko interdependentzia** ikusarazteko; egungo munduan, gure ekintzek beste lekuetan ondorioak dituztela ulertuz. Horrek globalki pentsatzea eta lokalki ekitea ekarriko du, eta gure garapeneredu desorekatua zailtzen jarriko du.

“Antikooperazio” delakoa ahal dela murriztu edo suntsitu nahi dugu. Antikooperazio deitzen diogu Hegoaldeko bizimodu ona oztopatzen duen eta Iparraldetik abiatzen den ekintza edo politika orori. Horrek ezinbestean eramango gaitu mundu-mailako sistema ekonomiko eta politikoak berrantolatzea eta banaketa bidezkoagoa eta parte hartzaileago batera, koherentzia handiagoa lortze aldera. Antolakuntza-mailan dugun diskurtsoa eta jarduna etengabe berrikusteak Mugarik Gaben barne-**koherentzia** lortzen lagunduko digu, gizarte justu eta solidarioagoa lortzeko.

Mugarik Gaben genero politika zehatzak ditugu 2005. urtetik, emaitzen bidez zehaztu ditugunak gure apustuen jarraipena egiteko. Azken urteotan gure diskurtso eta helburuek bilakaera izan dute, baina mantendu egin da Garapenean dugun genero ikuspegia eta Emakumeen Eskubideen aldeko defentsa, neurri zehatz zein zeharkakoen bidez. Hain zuzen, azken urteotan indartu egin da **emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista zein indarkeria matxisten aurkakoa**, giza eskubideen ikuspegitik abiatuta. Urte hauetan, antolaketa genero irizpideen arabera aldatzeko ikuspegiak gero eta leku gehiago hartu du antolakundean, eta estrategia berrian zeharka txertatu dugu.



Mugarik Gabetik, politikoki beti izan dugu argi pertsona guztien eskubide guztiak errespetatzeko eta erabiltzeko beharraren garrantzia, hori ardatz hartuta gizarte justuago bat eraikitzeko, non banakoak marko sozial edo kolektiboan ahaldunduko diren. Ondorioz,

defendatu behar ditugun funtsezko egitate politikoak dira herrien ahalduntzea eta haien eskubide guztien aitortza. Horregatik lan egiten dugu **herri indigenen eskubideen alde**; aske bizitzeko duten eskubidearen alde. Gaur egun, borroka nagusi batean laburtu genezake borroka hori: lurralde propioaren defentsaren eta duintasunez bizitzeko eskubidearen aldeko borroka. Transnazionalen eta estatuen eraso eta bortxaketen aurrean, herri indigenak babesteko konpromisoa mantentzen dugu, guztiona izan behar den borroka baita, **bizimodu ona, nazioaniztasuna, naturaren eskubideak** eta beste proposamen gako askorekin lagunduta egin beharrekoa.

Mugarik Gabek elikadura subiranotasunaren aldeko prozesuak babestu ditu hasieratik, Latinoamerikan ditugun bazkideen ekimenei erantzunez bereziki. Halaber, maila lokalean, 2009tik kontsumo arduratsuaren inguruko formakuntza prozesuak egin ditugu, eta horrela, bizitzaren jasangarritasunaren inguruko diskurtso politikoa aberastu eta eraiki ahal izan dugu bestelako antolakundearen laguntzarekin. Hala ere, 2010ean elikadura-burujabetza eta kontsumo arduratsua beste antolakunde aliatuekin batera zehatzago lantzea erabaki genuen. Gure ahaleginak **kontsumo- eta nekazaritza-eredua salatzerantz eta bertako alternatibak sustatzerantz** bideratu genituen, desazkundearen eta bizimodu onaren proposamen politikoen markoan, eta ikuspegi feministarekin. Ahaztu gabe, azken urtean barne-hausnarketa bat egin dugu antolakundean, eta horrek proposamen integralago baterantzko begirada zabaltzen lagundu digu: Bizitza Jasangarriak. Testuinguru horretatik abiatuta, garai berri honetan **bizi-eredu jasangarriak** eraikitzen lagunduko dugu, Euskal Herriko eta Latinoamerikako giza eskubideen urraketak salatzen —nekazaritza, ekonomia, energia eta zaintzen ildoetan— eta ekimen indibidual zein kolektiboak sustatzen.



Arlo Indigena

Lankidetzan eta Hezkuntzan, prozesuak

2017an, Hondurasen, kontinente-mailako Herri Indigenen Goi-bilera ospatuko da, eta Guatemalako antolakundeek laguntzaz ari dira antolatzen.

Formakuntza Politikorako eskolekin lotuta, bi topaketa egingo dira: 2017an Kolonbian eta 2018an Guatemalan.



Kolonbian

2016a “bakearen urtea” izenaz gogoratuko dugu Kolonbian. Lau urteko negoziazioen ostean, irailaren 25eko plebisizituan ezezkoak irabazi zuen gutxigatik, eta abstentzioak %60 gainditu zuen. Ondorioz, mugimendu sozialak astindu eta kaleak hartu zituzten akordioek aldeko aldarrikapenekin. Azkenik, akordioak abenduan onartu ziren Kongresuan, puntu batzuetan aldaketak egin ondoren. Akordioak abiarazteak eta bakea eraikitzeak erronka asko dakartza, eta Mugarik Gabetik garai berri honetan gure bazkideak indartu eta laguntzeko apustua egin dugu. Giza eskubideen defentsan, FARCEkin adostutako bake akordioak abiaraztean eta ELNrekin baterako bake prozesuaren testuinguruan kokatzen dira prozesuak. Halaber, une historiko honetan emakumeen ahalduak eta formakuntzak duten garrantzia azpimarratu nahi dugu.

*Nazioarteko lankidetzaren eraldatzaile baterantz*¹ (Icaria) liburuan, Kolonbiako adibideen bidez, Valentziako Unibertsitateko irakasle batzuk frogatzen saiatzen dira posible dela

¹ Jatorrizko izenburua: *Hacia una cooperación internacional transformadora* (Itzultzailearen Oharra).

neoliberalismoari aurre egingo dion lankidetzatza politiko bat, eta Mugarik Gaben harro gaude liburuko bi adibidetan aipatzen gaituztelako. Lehenengo adibidean "Kolektiba Kolonbia"-ren bidez emandako bultzadagatik, zeina gaur egun Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Programa den; bigarren adibidean, CODPIren bidez emandako laguntzarengatik, Kolonbian Caucako Pentsamendu Indigenaren Etxea sortzen laguntzeagatik.

Caucako Eskualdeko Kontseilu Indigenarekin² (CRIC) Emakume Programaren bidez eskolak irekiko ditugu Caucako hiru zonaldeetan, emakumeen eskubideak ezagutzeko, haien inguruan hausnartzeko eta komunitateetan genero desorekak konpontzeko proposamenak egiteko, bertako ekintza-planen bidez. Eskola bakoitzak bost gai-bloke garatuko ditu: Giza eskubideak, herri indigenen eskubideak eta emakumeen eskubideak; emakumeak politika publikoan; emakumeen parte hartzea politikan eta antolaketan; emakumeen kontrako indarkeriak testuinguru indigenan; familia indigena eta emakumea.

Halaber, indartzen jarraitzen dugu giza eskubideen lantaldea, dokumentazioa, giza eskubideen urraketen arreta eta datu-baseen berrikuspena; bereziki emakumeen aurkako indarkeriak hobeto erregistratzeko alorrak txertatuko dira. Bake akordioekin sortutako espazioetan parte hartzea: berme mahaia; egiaren, justiziaren eta minaren ordainaren batzordea; berme-sistema integrala; alerta lasterrera sistema. Gizateriaren aurkako bi kasu eta zenbait kasu adierazgarri dokumentatuko dira, Bakerako Jurisdikzio Berezian aurkezteko: haietako bat gatazkaren testuinguruan emandako emakumeen kontrako sexu-indarkeria kasua da.

Antiokiako Indigenen Antolakundearekin³ (OIA). Bake akordioen eta haien ezarpenaren inguruko proposamen, hausnarketa eta formakuntzaren alde egiten dugu. Bake akordioen inguruko parte hartzea eta barne-espazioak sortzea, emakumeen interesak jasoko dituzten formakuntza, hausnarketa eta proposamenekin.


Mugarik Gaberen Guatemalako bazkideekin esperientziak partekatzea bi herrialdeetako bake akordioen inguruan.

Mugarik Gaberen bertako bazkideekin esperientziak partekatzea askotariko gaien inguruan: Bolivian (despatriarkalizazioa), Guatemalan (feminismo komunitarioa) eta Mugarik Gaberekin (talde lan ez-patriarkala).

Aurreikusten dugu gatazka armatuaren testuinguruan emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako ekintzak garatzea, eta justizia indigenaren prozeduretan sartzea. Jarraipena eta egiaztapena egin emakumeen eskubideen egoeraz, eta gatazka armatuaren testuinguruan herri indigenen eskubideak, 092 autoa eta 004 autoa betetzea.

Bolivia

Prozesuak Eskubide, Genero eta Komunikazio Eskolan kokatzen dira. Emakumeen eta herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboen inguruko formakuntza prozesuekin laguntzen dugu, eta baita komunikaziorako formakuntza teknikoekin ere. Formakuntza jasotzen duten komunikatzaileek askotariko komunikazio-produktuak garatzen dituzte (prentsa, irratia, ikus-entzunezkoak...), komunitateen artean hedatzen direnak irratia, telebista,



² Consejo Regional Indígena del Cauca (I.O.).

³ Organización Indígena de Antioquia (I.O.).

internet eta abarren bidez. Emakumeen parte hartzea eta hizkuntza zein irudi ez sexistak sustatzen ditugu. Estatu nazioaniztuna kolektiboki sortzeko hausnarketak sortzen laguntzen dugu. Halaber, ezberdintasuna eta emakume indigenen parekidetasuna lantzen ditugu.

Komunikazio indigena propioa tresna gisa erabili, besteak beste, honako helburuekin:

- **Bizimodu onaren** paradigma sustatzen duten **balio, ezagutza eta praktika** tradizionalak berreskuratu, zabaldu eta balioa handitu, bizitza apala, osoa eta naturarekin armonia duinean dagoena lortzeko. Sistema honen helburua ez da kapitala pilatzea, baizik eta bizitza erreproduzitzea norberarekiko, komunitatearekiko eta biosferarekiko orekan. Pentsamenduaren deskolonizazioa eta despatriarkalizazioa bilatzen ditu.
- **Herri indigenen eskubideei** eta legeei buruzko informazioa ere zabaldu nahi da, hausnarketa eta eztabaida sortzeko Bolivian estatu nazioaniztuna sortze aldera; estatu horren konstituzio politikoak **eskubideen subjektutzat hartzen du Natura**.
- **Komunitate-ekonomia** ezagutarazi estatuaren konstituzio politikoan aitortzen den Ekonomia Pluraleko modu bat bezala. Komunitate-ekonomia gizartearen zerbitzura dago (eta ez alderantziz) eta epe ertainera eta luzera ongizate kolektiboa du helburu, Ama Lurrarenganako errespetua oinarri eta Bizimodu onaren paradigmapean.
- **Elikadura-burujabetza** eta ekoizpen agroekologikoaren printzipioak zabaldu eta haien inguruan hausnartu, baita planetaren ingurumen-jasangarritasunerako lagungarriak diren bestelako praktiken inguruan ere.





Guatemala

Lider indigenen Formakuntza Politikorako eskolak indartzen jarraitzen dugu, ekialdeko Asecsa eta Ukuxbe bazkide lokalekin, Mundu Ikuskera eta Identitate Maiaren Formakuntza Diplomaren bidez.

Lantzen jarraitzen dugun ildo garrantzitsua da **lurraldearen defentsa eta transnazionalen** — bereziki, hidroelektrikoak— **kontrako borrokarena** eta Marley meatzearen ustiapenak herritarren osasunean dituen eraginak.

Mugarik Gaberen bazkide lokalarekin batera (Sector de Mujeres), bizimodu onaren paradigmari ikuspegi feminista txertatzearen alde egiten dugu. Gainera, sareak eratzea eta lurraldeko antolakunde txikiak indartzea babesten dugu.

Halaber, ikerketa bat egingo dugu ikuspegi politiko eta legeetik abiatuta eskubide urraketa indibidual zein kolektiboez, eta lurraldearen defentsan duten eraginaz.



Euskal Autonomia Erkidegoa

Gasteizen, 2017an, elkartruke eta konferentzia publiko bat ospatuko da “**Emakume bakegileak**” lemapean.



Komunikatuz Eraldatzu kanpainak, jarraipena ematen dio Eutsi edo hil kanpainari; azken hau lurralde indigenetan zein hemen multinazionalen duten eragina zuen hizpide. Komunikatuz Eraldatzu kanpainaren bidez, komunikazio indigenaren rola lantzen dugu han, eta komunikazio alternatiboaren rola hemen. Formakuntza eta eragin politikoko fasearen hasieran gaude, erakunde, komunikabide alternatibo eta komunikazio ikasleekin elkartruke bat egiten. Tailerrak egin ditugu Mondragon Unibertsitatean,

kontrapublizitateaz eta komunikazio ez-sexistaz. 2107ko urtarrilean gai horiek landuko dituen ikastaro bat eta komunikazio alternatiboari buruzko beste batzuk egingo ditugu Donostiako Deustun. Leioako Kazetaritza fakultatean mahainguru batzuk antolatuko ditugu komunikazio alternatibo eta ez-sexistaz.

Genero sailetik elkarlanean gaude Kolonbiako bazkide lokalekin, indarkeria matxisten Memoria eta Ordainaren prozesuak lantzeko. Gainera, bitzta-istorioen prozesuak eta haien alderdi juridiko eta legalak ikertzean, Maria Naredok Guatemalan transnazionalen emakumeen aurka egindako eskubide urraketak jaso ditu.

Kanpaina:

Komunikatuz Eraldatu. Los Pueblos dueños de su comunicación

Kanpaina honek hainbat ekimen garatu zituen Bilbon. Aipagarriak dira, besteak beste:

- **Elkarriketak.** Herri Irratian (maiatzak 19) eta Euskadi Irratian (maiatzak 22 eta 24).
- **Erakunde bilerak.** Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzak eta Herriarren Eskubideen Zuzendaritzarekin, eta Bilboko Udaleko Lankidetzak Sailarekin.



- **Ekainaren 8an**, Bilboko Hika Ateneoan mahainguru bat aurkeztu zen **masa-komunikabideen eta komunikabide alternatibo**en inguruan. Mugarik Gabek hitzaldia eskaini zuen: “Informazioarako eta Komunikazioarako eskubidea. Errealitateak, herriak eta kolektiboak ikusezin egitea”. Bertan komunikazioa eskubide gisa eta herrien emantzipazioarako tresna bezala aurkeztu genuen.





Kanpaina: “Eskubideek ez dute Mugarik, los derechos humanos no tienen fronteras”

2015ean, GGKE batzuek —Colombia Euskadi, Solidaridad Internacional eta Mugarik Gabe—, kanpaina bat abiatu genuen: “Eskubideek ez dute Mugarik/ Los Derechos Humanos no tienen Fronteras”. Kanpainak helburu zuen indarrak batzea giza eskubideak defendatzeko eta betetzeko babes-programak laguntzeko. Izan ere, ikusi dugu nola krisiak arriskuan jartzen dituen giza eskubideak, politika eta ekonomiaren menpe utziz.

Kanpainaren bidez Kolonbia eta Palestinako eskubide urraketak salatu nahi ditugu zehazki. Halaber, Colombia Euskadi, Mugarik Gabe eta Solidaridad Internacional-en aliatu diren hiru antolakunde aurkeztu nahi ditugu: Adameer, Yapawayra eta Cauca Eskuadeko Kontseilu Indigena edo CRIC, zeintzuek Gasteizko Udalaren eskubideen defentsarako programaren finantzaketa jasotzen duten.

Gainera, eskubideen defentsa egiten duten herrien arteko eta nazioarteko elkartasunaren garrantzia azpimarratu nahiko genuke, baita Gasteiz elkartasuna agertzen duen hiria dela ere.

Kanpainak 2015ean hasitako jarduerekin jarraitu zuen, eta 2016an honako jarduerak burutu ditugu:

✧ **Mahaingurua: “Kolonbia: Begirada bat emakumeen eta herri indigenen giza eskubideei bake prozesuaren testuinguruan”.**

Mahaingurua martxoaren 4an egin zen Gasteizko Montehermoso Jauregian. Bertan parte hartu zuten Ruta Pacífica de Colombiako Teresa Aristizabalek eta CRICeko kontseilari Lida Emilse Labiok.



Hizlariak hiru gairen inguruko hausnarketa egin zuten:

- 1.- Emakumeen eta herri indigenen eskubideen egoeraren ikuspegi orokorra.
 - 2.- Herri indigenen eta emakumeen parte hartzea bake akordioetan, Habanako bake akordioetan haien eskaerak nola jaso ziren.
 - 3.- Gatazkaren osteko eszenatokiak. Erronkak emakumeen eta herri indigenen giza eskubideen ikuspuntutik.
- **Kanpainaren trailerraren aurkezpena eta dokumentalaren difusioa.** Martxoaren 4an “Giza Eskubideek ez dute Mugarik/ Los DDHH no tienen fronteras” kanpainaren trailerra aurkeztu genuen. Geroago, dokumentala hiru antolakundearen webguneetan, Udalaren webgunean eta sare sozialetan argitaratu genuen.

<https://vimeo.com/174788879>

<https://youtu.be/JeI-X1YIWEo>

▲ **Erakusketa “Eskubideek ez dute Mugarik, los derechos humanos no tienen fronteras”.** Erakusketak 11 panel ditu. Argazkien eta testu labur baten bidez, Kolonbia eta Palestinako giza eskubideen urraketak islatzen ditu. Halaber, testuinguru horietan lan egiten duten hiru antolakundearen (Yapwayra, Caucaoko Eskualdeko Kontseilu Indigena eta Adameer) estrategiak erakusten ditu; antolakunde horiek kanpaina hau sustatzen duten hiru GGKE gasteiztarren babesa jasotzen dute, Gasteizko Udalaren giza eskubideen defentsarako programaren laguntzaz. Erakusketa mahainguruaren egunean zabaldu zen, eta Gasteizko sei ikastetxe eta bost gizarte-etxetan jarri da ikusgai.



⤴ **Prentsaurrekoa martxoaren 3an, Lankidetza Zerbitzuarekin eta komunikabideak deitu zituen Udaleko Prentsa Zerbitzuarekin batera.**

⤴ **Eusko Legebiltzarreko giza eskubideen batzordean agerpena.** Teresa Aristizabal eta Lida Emilse Labio gonbidatuek, Alejandra Burgosekin batera —El Salvadorreko abortuaren despenalizaziorako Sarea— giza eskubideen defendatzaile gisa dituzten lekukotasunak eskaini zituzten.

⤴ **Gasteizko Udaleko talde politikoen agerpena Parte hartzerako eta Lankidetzarako Batzordean.**



Bizitza Jasangarrirako arloa

Lankidetzan eta Hezkuntzan, prozesuak

Kuba

Animalia Ekoizpeneko Kubako Elkartearekin⁴ (ACPA) lankidetzan jarraitzen dugu Cienfuegos eta Santiagoko eskualdeetan. Horrela, elikadura-burujabetzarantz urratsak emateko nekazaritza- eta abeltzaintza-eredua eraldatzen lagunduko dugu, Kubako gobernuaren nekazaritza- eta elikadura-estrategiaren arabera. Gaur egun martxan dauden proiektuek ardatz daukate ekoizpen unitateak indartzea ekoizpenak areagotu eta dibertsifikatzeko, eta herritarren elikagai- eta diru-beharrak asetzeko. Babesa, alde batetik, formakuntzan eta maila teknikoan eskaintzen dugu, eta bestetik, teknologia-mailan azpiegiturak birgaitzen, ureztatze-sistemak txertatzen eta jezte-sistemak eta bestelako ekipoak eskaintzen. Halaber, arreta berezia eskaintzen diegu genero ezberdintasunei, eta neurri zehatzak txertatzen dira kooperatibako erabakitze-espazioetan emakumeen parte hartzea areagotzeko eta enpleguen irisgarritasuna sustatzeko.

Guatemala

ASECSA bazkide lokalak elikadura-burujabetzako hiru eskola politiko ditu, eta nekazariak laguntzen ditu ekoizpen agroekologikoko prozesuak abiatzeko. Horrela, familientzat osasungarriak eta ingurumenerako kaltegabeak diren elikagaiak bermatzen dira. Gainera, komunitateetako eta bertako aginpidearen aurrean eragin politikoa egiten dugu lursail-ereduen bidez, Alta Verapazeko elikadura-burujabetzarako frogatutako alternatiba gisa. Halaber, 160 familiarekin gaude elkarlanean, formakuntzan, kontsumo kontziente eta arduratsuan, ikuspegi politikotik eta autokontsumorako baratzeen truketik abiatuta.

Nikaragua

Xochilt Acaltekin laguntza ematen dugu lursail-eredu jasangarriak ezartzeko. Berrikuntza gisa, alderdi ekonomikoan gizonei laguntza eskaintzen hasi da bestelako elkarte bidez, Xochilt Acalten soilik emakumeak daudelako.

Ingurumen arazo handia dago lehorteekin, eta komunitateak ingurumenak haiengan duen eraginaz hausnartzen ari dira; besteak beste, Mina Limoneko komunitatea. Etxeetako sukaldeetan biogasarekin (animalien, pertsonen eta elikagaien hondakinak) lan egiten hasi dira. Nikaraguan ere, gazteak herrialdetik joaten ari dira ez dutelako nekazari izan nahi. Gure bazkide lokalaren bidez ihesaldi hori gelditu da baina, orokorrean, migrazioa asko igotzen ari da. Migrazioak eragina dauka ere liderren formakuntzan. Historikoki gizarte mugimendurik indartsuena mugimendu feminista izan da, eta indarra galtzen ari da ekintzaile feminista askok ihes egin behar izan dutelako xaxatzearen ondorioz. Aitzitik, herrialdean mugimendu ekologista birjaiotzen ari da.

Horri guztiari gehitu behar zaio gobernuak GKE guztiak bota dituela NBetik eta nazioarteko elkarteetatik.

Ekoizpen-ereduan eskaintzen diren formakuntzen artean, informazio tarte bat dago kontsumitzen diren eta hurbil ekoizten diren elikagaiei buruzkoa, eta zabor-janariaren ingurukoa. Kontsumo-ohiturak aldatzeko zailtasun handiak dituzte; izan ere, esaterako, Coca-Cola eta freskagarriak ura baino hiru aldiz merkeagoak dira.

⁴ Asociación Cubana de Producción Animal (I.O.).

Esperientzia hori gertuko beste eremu batzuetara eramatea oso zaila da, laguntza integraleko lana delako eta egitura oso zabala behar duelako. Hala ere, beste antolakundeekiko elkartrukeak areagotu dituzte, Matapalgako kooperatibekin eta uraren sarearekin.

Axayacalt

Ahalduntze ekonomikorako proiektuekin jarraitzen dugu, eta kanalaren kontuarekin (Panamatik Nikaraguaraino ozeano Baretik), borroka garrantzitsua eman baita bertan.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Bizitzaren irakunkortasunaren ikuspegitik, Desazkunde eta Bizimodu Onaren Sarearen bidez, eraikuntza kolektiboko prozesua sustatu dugu Euskal Herriko eta Latinoamerikako askotariko antolakundeekin batera. Helburu dugu hainbat arlotan (ekonomia, elikagaiak, energia eta zaintzak) oinarritzeko iruditzen zaizkigun aldarrikapenak definitzea, etorkizunean eragin politikora bideratutako prozesuak garatzeko.

DESAZKUNDEA ETA BIZITZE ONA SAREAREN IBILBIDE KOLEKTIBOA



Ecuador Etxea

Zentzuz Kontsumitutik, ekintza ildoan eguneratu dugu aurten. Proiektua identifikatu eta gero, teorikoki zein praktikoki hiru gai-bloketan aurrera egitea proposatzen da: elikadura-burujabetza, erosketarako arduratsuak eta zaintzak. Formakuntzarako, gizarte-mobilizaziorako eta eragin politikorako ekintzak izango dira lan tresnak.


Gipuzkoako kontsumo arduratsurako **SARETUA** sareari eskainitako babesa kultura ildoan zehaztuko da zoriontsu izateko kontsumo arduratsu bat lortzeko, bizimodu ona barne hartuta. Buruan dugu berriz ere kontsumo pertsonalean eragitea tokiko saltokiak indartzeko. Kale-izendegien aplikazio bat egin dugu, gaiarekiko kontzienteago eta arduratsuago izan gaitezen. Horrekin batera, aurrera doa sarearen legalizazio prozesua.

Babesa eman diogu **TTIP ez** kanpainari, lan mahai eta jardunaldien bidez. Etorkizunean komunikazio-kanpaina bat egingo dugu, 2016ko jardunaldietan etorri ziren kideen artikuluekin, bestelako kolektiboez gain. TTIP plataforman denbora daramagu kanpaina honekin, eta Euskal Herri mailan plataforma karta sozialarekin lotu dugu.



Sare **EKOSOZIALISTA**ri babesa eman diogu, Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak egiteko. Sindikatu eta gizarte-antolakundeekin aritu gara, oso interesgarria egin zaigu, eta normalean helburu ez dugun jendearengana iritsi gara.

Ekonomia sozial eta solidariorako REAS Sarean eta **EKOSOLFEM** taldean parte hartu dugu. EKOSOLFEMek helburu du ekonomia solidario eta feministaren inguruko diskurtsoa eraikitzea, eta REASEko antolakundeetan eragitea feministagoak izan daitezen. Esan beharra dago kanpo-prozesuez gain, barne-mailan hausnarketa prozesu bat sustatu gurela 2016an, eta ondorioz Mugari Gabek jarrera hartu duela Bizitza Jasangarri eta bidezkoegi dagokienez. 2017. urtera begira, Mugari Gaberen ekologia-politikaren berrikuspena eta jarraipena egingo ditugu.



2016 urtean zehar La Vía Campesina-rekin elkarlanean aritu gara 2017ko uztailan ospatuko den euren Nazioarteko VII Topaketaren antolakuntzan.

Alderdi honi dagokionez, 2016an hausnarketa bat eta dokumentu bat egin ditugu, Mugari Gabek Bizitza Jasangarri eta bidezkoegi duen jarreraz. 2017. urtera begira, Mugari Gaberen ekologia-politikaren berrikuspena eta jarraipena egingo ditugu.

DESAZKUNDEAREN ETA BIZIMODU ONAREN SAREA

V.Topaketak: “Desazkundera eta Bizitze Ona” bi egunez Bilbon.

Data: 2016ko ekainaren 3a **Lekua:** Bilbo

Desazkundera eta Bizitze Onaren V. Topaketak 2016ko ekainaren 3an egin ziren Bilbon. Oinarrizko Dokumentuaren eta bere edukien aurkezpen publikoa jardunaldiaren ardatza izan zedin erabaki zen. Horrela, topaketa programa bat prestatu zen, eta ardura zuten kolektiboek ildo bakoitza aurkeztu zuten. Topaketak sarearekin elkarlanean egindako azken urtearen eraikuntza kolektiboa sozializatzeko izan zitezen prozesuarekiko estrategikoagoa eta koherenteagoa zela pentsatu zen. Horregatik guztiarengatik, programa egoki bat pentsatu zen helburu hori betetzeko, eta topaketak egun bat iraun zuen.



Dokumentalaren aurkezpena TIPI-TAPA: Bizimodu Jasangarrietarantz

Data: 2016ko uztailaren 6a **Ordua:** 19:00 **Lekua:** Bilbo

Uztailaren 6an aurkeztu zen *TIPI- TAPA: Bizimodu Jasangarrietarantz* dokumentala Bilboko Hikaateneoan. Bertan egon ziren dokumentaleko protagonista batzuk, Basortuko kideak. proiektioaren ostean Mugarik Gabek dinamizatutako eztabaida egin genuen, eta saioa zizkamizka batzuekin bukatu genuen.



23 pertsonak hartu zuten parte jardueran (12 emakume eta 11 gizon).

- Ikusi TIPI TAPA: Hacia vidas Sostenibles / Bizimodu jasangarrietarantz (25')

Sinopsia: Pedoren istorioa kontatzen duen dokumentala da. Pedro 67 urteko jubilatua da, eta bizitzeko bestelako moduak daudela deskubritzen du adin horrekin. Jakin-minak bultzatuta eta erretiroak eskaintzen dion denborari esker, Pedrok pertsona eta esperientzia andana ezagutuko ditu, elikadura, ekonomia, zaintzak eta erabiltzen dugun energia aldatzeko borrokatzen dutenak. Ikertzaile-bidaia protagonista honako galdera hau erantzuten saiatuko da: garaiz al nabil bizimodu jasangarri bat aukeratzeko?



ZENTZUZ KONTSUMITU

